



EUSKADIKO HAUTESKUNDE
ADMINISTRAZIOA
AUTONOMIA ERKIDEGOKO
HAUTESKUNDE BATZORDEA

ADMINISTRACIÓN ELECTORAL DE
EUSKADI
JUNTA ELECTORAL DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA

**AKTA, AUTONOMIA ERKIDEGOKO
HAUTESKUNDE BATZORDEAK 2012KO
URRIAREN 10EAN EGINDAKO BILERARI
DAGOKIONA**

**ACTA DE LA REUNIÓN DE LA JUNTA
ELECTORAL DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA CELEBRADA EL DÍA 10 DE
OCTUBRE DE 2012**

Gasteizen, 2012ko urriaren 10ean, 18:40ean, bilkura hasi du Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak. Juan Luis Ibarra Robles jaunaren lehendakaritzapean, lehendakariorde Luis Javier Murgoitio Estefanía jauna, Florentino Eguaras Mendiri jauna, Juan Carlos Benito-Butrón Ochoa jauna, Antonio García Martínez jauna, Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea, Santiago Merino Hernández jauna, Miguel Alonso Belza jauna, Fidel Ignacio Uriarte Pérez jauna eta Aitor Zaldua González jauna bildu dira. Bileran izan dira, halaber, Montserrat Auzmendi del Solar andrea, batzordearen idazkaria; Sonia Fernández López andrea, Administrazioko ordezkaria eta Agustín Peña Irala jauna, Hautesle Erroldaren Bulegoko ordezkaria. Bilerara ez joatea aitzakiatu du Jon Larrinaga Zulueta jaunak.

Bilkurari hasiera emanda, eta 2012ko urriaren 4an egindako bileraren aktari dagokionez, 22. puntuan, --- egindako zehaztapenean, azaldu beharra dago ezen, gainera, ekintza zientzilari interesdunei zuzenduta zihoala. Oharpen hori eginez, akta bozketarik gabe onetsi da.

En Vitoria-Gasteiz, siendo las 18:40 horas del día 10 de octubre de 2012, se reúne la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma bajo la presidencia del Excmo. Sr. D. Juan Luis Ibarra Robles y con la asistencia del vicepresidente, Ilmo. Sr. D. Luis Javier Murgoitio Estefanía, del Ilmo. Sr. D. Florentino Eguaras Mendiri, Ilmo. Sr. D. Juan Carlos Benito-Butrón Ochoa, Ilmo. Sr. D. Antonio García Martínez, Ilma. Sra. D.ª Garbiñe Biurrun Mancisidor, D. Santiago Merino Hernández, D. Miguel Alonso Belza, D. Fidel Ignacio Uriarte Pérez y D. Aitor Zaldua González. Asisten también la secretaria de la Junta, D.ª Montserrat Auzmendi del Solar, la delegada de la Administración, D.ª Sonia Fernández López y el representante de la Oficina del Censo Electoral, D. Agustín Peña Irala. Ha excusado su ausencia el Sr. D. Jon Larrinaga Zulueta.

Abierta la sesión, y en relación con el acta de la reunión celebrada el día 4 de octubre de 2012, en el punto 22, en la precisión realizada por --- ha de indicarse que, además, el acto iba dirigido a los científicos interesados. Hecha esta observación, el acta se aprueba por asentimiento.



Ondoren, jasotako idazkiei dagokienez, batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

1.- Erabakia

Unión, Progreso y Democraciak JECAk 2012ko irailaren 27an Euskal Irrati Telebistako "Euskadi pregunta" hauteskunde-programazioari buruz hartutako akordioaren aurka jarritako errekurtoa dela-eta (909)
Nork :Hauteskunde Batzorde Zentrala

Batzordea jakitun geratu da.

2a.- Alegazioak

UPyDk ordezkaritza parlamentariarik gabeko alderdiei buruz Irrati eta Telebista Batzordeak hauteskunde-propagandako doako tarteen banaketarako onetsitako proposamenaren gainean jarritako errekurtoa dela-eta (910)
Nork :Euskal Irrati Telebista, zuzendari nagusia

Batzordea jakitun geratu da.

2b.- Alegazioak

Unión, Progreso y Democraciak EAeko hauteskunde-kanpainaren jarraipen informatiboko planaren aurka jarritako errekurtoari (913)
Nork :Radio Televisión Española, Idazkari nagusia

Batzordea jakitun geratu da.

2c.- Errekurtsoa

Hedabideen jarraipen informatiboko planaren aurka, bai EITBn bai RTVEen, eztabaidei eta elkarrizketei dagokienez (Gai hau 2012ko urriaren 4ko bileran

A continuación, en relación con los escritos recibidos, la Junta adopta los siguientes acuerdos:

1.- Acuerdo

En relación con el recurso interpuesto por Unión, Progreso y Democracia contra el acuerdo de la JECA de 27 de septiembre de 2012 sobre programación electoral de Euskal Irrati Telebista "Euskadi pregunta" (909)
Origen: Junta Electoral Central

La Junta toma conocimiento.

2a.- Alegaciones

En relación con el recurso de UPyD sobre la propuesta de distribución de espacios gratuitos de propaganda electoral relativa a los partidos sin representación parlamentaria, aprobada por el Comité de Radio y Televisión (910)
Origen: Euskal Irrati Telebista, director general

La Junta toma conocimiento.

2b.- Alegaciones

Al recurso interpuesto por Unión Progreso y Democracia contra el plan de cobertura informativa de la campaña electoral del País Vasco (913)
Origen: Radio Televisión Española, Secretaria general

La Junta toma conocimiento.

2c.- Recurso

Contra el plan de cobertura informativa de los medios de comunicación, tanto en EITB como en RTVE, en lo que a debates y entrevistas se refiere (Este asunto se trató



aztertu zen eta zain gelditu zen EITBren eta RTVEren alegazioak jaso arte) (914)

Nork :Unión, Progreso y Democracia (UPyD), ordezkari orokorra

Batzordeak uste du ezen bai EITBk bai Radio Televisión Española-k planteaturiko eztabaida-antolaketak eta Radio Televisión Españolak jarritako elkarrizketa-antolaketak ez dituztela urratzen proportzionaltasun, neutraltasun eta berdintasun printzipioak, zeren programazio horiek antolatzeko irizpidea guztiz arrazoizkoa baita, kontuan izanez, bestalde, erakunde biek aurkeztutako alegazioak ere. Beraz, Hauteskunde Batzordeak ez du aintzakotzat hartu jarritako errekurtsua.

3a.- Ebazpena

"Pre-Electoral Elecciones Autonómicas 2012 País Vasco Estudio nº 2959" Ikerketa Soziologikoen Zentroaren Azterlana dela-eta (911)

Nork :Hauteskunde Batzorde Zentrala

Idazki hau bidali zaie erakunde politikoetako ordezkari orokorrei eta lurralde historikoetako hauteskunde batzordeei.

3b.- Idazkia

Berekin batera dakar "Pre-Electoral Elecciones Autonómicas 2012 País Vasco Estudio nº 2959" (CD formatuan) (916)

Nork :Presidentza Ministerioa, Estatuko Idazkaritza

Azterlan hau erakunde politikoetako ordezkari orokorrei bidali zaie.

en la reunión de 4 de octubre de 2012 y quedó pendiente de recibir las alegaciones de EITB y de RTVE) (914)

Origen: Unión, Progreso y Democracia (UPyD), representante general

La Junta entiende que la organización de debates planteada, tanto por EITB como por Radio Televisión Española, y la organización de entrevistas establecida por este último ente, no vulnera los principios de proporcionalidad, neutralidad e igualdad, dado que el criterio con que se organizan estas programaciones no incurre en irrazonabilidad, a la vista, por otra parte, de las alegaciones presentadas por ambos entes. Por lo tanto, esta Junta Electoral desestima el recurso planteado.

3a.- Resolución

En relación con el Estudio del Centro de Investigaciones Sociológicas "Pre-Electoral Elecciones Autonómicas 2012 País Vasco Estudio nº 2959" (911)

Origen: Junta Electoral Central

Este escrito ha sido remitido a los representantes generales de las formaciones políticas y a las juntas electorales de territorio histórico.

3b.- Escrito

Adjunta estudio "Preelectoral Elecciones Autonómicas 2012. País Vasco. Estudio n.º 2959" (en formato CD) (916)

Origen: Ministerio de la Presidencia, Secretaría de Estado

Este estudio ha sido remitido a los representantes generales de las formaciones políticas.



4a.- Idazkia

Gora jotzeko errekurtoa eransten du, Partido Popularraren lurralde-ordezkariek jarria Arabako lurralde historikoko Hauteskunde Batzordearen 2012ko urriaren 2ko Akordioaren kontra, bai eta Batzorde horrek emandako txostena ere. (912)

Nork :Arabako LHko Hauteskunde Batzordea

4a.- Escrito

Adjunta Recurso de alzada formulado por el representante territorial del Partido Popular contra Acuerdo de la Junta Electoral del territorio histórico de Araba de 2 de octubre de 2012, así como informe emitido por esa Junta (912)

Origen: Junta Electoral del TH de Álava

4b.- Idazkia

Espedientea eransten du Partido Popularraren lurralde-ordezkariek Arabako lurralde historikoko Hauteskunde Batzordearen 2012ko urriaren 2ko Akordioaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtoaren inguruan (918)

Nork :Arabako LHko Hauteskunde Batzordea

4b.- Escrito

Adjunta Expediente en relación con el recurso de alzada formulado por el representante territorial del Partido Popular contra Acuerdo de la Junta Electoral del territorio histórico de Araba de 2 de octubre de 2012 (918)

Origen: Junta Electoral del TH de Álava

4c.- Idazkia

Bi txosten eransten ditu, bata JETHAko presidentearen urriaren 3ko akordioaren inguruan eta bestea JETHAren 2012ko urriaren 3ko akordioaren inguruan, biak ere Partido Popularraren lurralde-ordezkariek akordio horien aurka jarritako gora jotzeko errekurtoari buruzkoak (920)

Nork :Arabako LHko Hauteskunde Batzordea

4c.- Escrito

Adjunta sendos informes, uno en relación con el acuerdo del Presidente de la JETHA de 3 de octubre y otro relativo al acuerdo de la JETHA de 3 de octubre de 2012, correspondientes al recurso de alzada formulado por el representante territorial del Partido Popular contra dichos acuerdos (920)

Origen: Junta Electoral del TH de Álava

4d.- Idazkia

Bi kopia bidaltzen ditu: JETHAk Javier Maroto jaunaren gutunaz hartu eta Partido Popularrari igorritako akordioarena, eta erakunde politiko berari zigor-espedientea ireki zaiolako jakinarazpenarena (921)

Nork :Arabako LHko Hauteskunde Batzordea

4d.- Escrito

Remite copia del acuerdo de la JETHA enviado al Partido Popular relativo a la carta de D. Javier Maroto, y copia de la comunicación de apertura de expediente sancionador a la misma formación política (921)

Origen: Junta Electoral del TH de Álava



Partido Popularreko ordezkariak argudiatutako errekursoaren lehenengo zioari dagokionez –esaten zuena Arabako lurralde historikoko Hauteskunde Batzordeko presidentek ez zeukala eskumenik 2012ko urriaren 2ko ebazpena hartzeko–, Hauteskunde Batzorde honek aintzat hartzen du Hauteskunde Batzorde Zentralak finkaturiko irizpidea, batzorde horrek aurrekariak bai baititu bere presidentek presako egoeretan ebazpenak hartu dituenekoak, are errekursoen kasuan ere, eta ez kontsulten kasuan bakarrik, arauak hitzez hitz dioten eran. Nolanahi ere, uste izango balitz ere organo honek eskumenik ez daukala eta, beraz, bera baliogabetu egin daitekeela, baliogabegarritasun hori gainditu egingo zukeen lurralde historikoko Hauteskunde Batzordeak gero hartutako ebazpenak, kontuan izanez 30/1992 Legeko 67.3 artikulua dioena (Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta Administrazio Prozedura Komunari buruzko Legea bera). Bestalde, errekurso-egileek aipatutako bigarren zioari gagozkiola –lurralde historikoko Hauteskunde Batzordearen lurralde-mailako eskumenik eza–, Hauteskunde Batzorde honek uste du ezen salatutako eginkaria, Javier Maroto jaunaren gutuna –komunikazio hau hautagai gisa eta Gasteizko alkate gisa bidali baitie hiri honetako auzokide guztiei–, komunikaziozko harremana den aldetik, Vitoria-Gasteiz udalerraren eremura mugatzen den eginkaria dela, lurralde historikoko Hauteskunde Batzordeak prestatutako txostenak irizten dion bezala. Horregatik, Hauteskunde Batzorde honek ulertzen du ezen, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legeko 30. artikulua aplikatuz, eskumena Zonako Hauteskunde Batzordearen baitan dagoela kasu honetan. Nola ebazpenak lurraldearengatik eskumenik ez zeukan organoak hartu baititu, beraz, ebazpen

Atendiendo al primer motivo del recurso argüido por el representante del Partido Popular en el sentido de que el presidente de la Junta Electoral del territorio histórico de Araba carecía de competencia para adoptar la resolución de 2 de octubre de 2012, esta Junta Electoral atiende el criterio sentado por la Junta Electoral Central, la cual tiene precedentes de adopción de resoluciones por su presidente en situaciones de urgencia, incluso en el caso de recursos, y no solamente en caso de consultas, tal como señala el literal de la norma. En todo caso, incluso si se entendiera la incompetencia de este órgano, y por lo tanto, el carácter anulable del mismo, esta anulabilidad habría sido subsanada por la resolución adoptada posteriormente por la Junta Electoral del territorio histórico, teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 67.3 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común. Por otra parte, en cuanto al segundo de los motivos señalados por los recurrentes - la incompetencia territorial de la Junta Electoral del territorio histórico-, esta Junta Electoral estima que el hecho denunciado, la carta del Sr. Javier Maroto, que remite esta comunicación como candidato y como alcalde de Vitoria a todos los vecinos de esta ciudad, es un hecho que se circunscribe, en cuanto relación comunicativa, al ámbito del municipio de Vitoria-Gasteiz, como da por hecho el informe llevado a cabo por la Junta Electoral del territorio histórico. Es por ello que esta Junta Electoral entiende que, en aplicación del artículo 30 de la Ley de Elecciones al Parlamento Vasco, la competencia está, en este caso, radicada en la Junta Electoral de Zona. Dado que las diferentes resoluciones, por lo tanto, han sido adoptadas por órgano incompetente por razón de territorio, las



horiek erabat deuseztat jo dira, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta Administrazio Prozedura Komunari buruzko 30/1992 Legeko 62.b artikulua araber.

Hala eta guztiz ere, Zonako Hauteskunde Batzordeak legez dagokiokeen eskumena baliatu dezake.

4e.- Idazkia

Jakinazten du Partido Popularrak eskatutako EAEn bizi diren hautesleen hautesle-eroldaren kopia entregatu egin zela irailaren 25ean 09:45ean (924)

Nork :Hauteskunde Erroldaren Arabako Bulegoaren ordezkari

Batzordea jakitun geratu da.

4f.- Faxe

Bidaltzen du, bateko, Partido Popularraren lurralde-ordezkariek Arabako lurralde historikoko Hauteskunde Batzordearen 2012ko urriaren 8ko akordioaren aurka jarritako errekurtoa, eta, besteko, Batzorde horrek egindako Txostena (928)

Nork :Arabako LHko Hauteskunde Batzordea

Gai hau ebatzi gabe utzi da, Arabako lurralde historikoko Hauteskunde Batzordeak errekurtoari buruzko expediente osoa noiz bidaliko zain.

5.- Idazkia

Banco Popular Español, S.A.ri lagatzeari buruz Partido Popularrari egokitu lekizkiokeen diru-laguntzen kobratzeko eskubidea (915)

Nork :Rodríguez Cativiela, Enrique José, Notario

mismas son declaradas nulas de pleno derecho, conforme al artículo 62.b de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

Todo ello, sin perjuicio de que la Junta Electoral de Zona ejerza la competencia que legalmente le corresponda.

4e.- Escrito

Comunica que la copia del censo electoral de los electores residentes en el País Vasco solicitada por el Partido Popular fue entregada el día 25 de septiembre a las 09:45 horas (924)

Origen: Delegación de la Oficina del Censo Electoral en Araba

La Junta toma conocimiento.

4f.- Fax

Traslada recurso interpuesto por el representante territorial del Partido Popular contra el acuerdo de la Junta Electoral del territorio histórico de Araba, de 8 de octubre de 2012, así como Informe emitido por esa Junta (928)

Origen: Junta Electoral del TH de Álava

Este asunto queda pendiente, a la espera de que se remita por parte de la Junta Electoral del territorio histórico de Araba, el expediente completo relativo al recurso.

5.- Escrito

En relación con la cesión al Banco Popular Español, S.A., del derecho de cobro de las subvenciones que pudieran corresponderle al Partido Popular (915)

Origen: Rodríguez Cativiela, Enrique José, Notario



Batzordea horren jakitun geratu da eta erabaki du Jaurlaritzari bidaltzea.

6.- Idazkia

Jakinarazten du Ezkierda Unidak atzera egiten duela Hauteskunde Batzorde Zentralaren 12-9-20ko akordioaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, akordio horrek ez baitzuen aintzat hartzen JECAren 12-9-14ko akordioaren aruka jarritako errekurtsoa hauteskunde-kanpainan titulartasun publikoko hedabideak erabiltzeko eskubidea onestearen inguruan (917)

Nork :Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia, Administrazioarekiko Auzietako Sala

Batzordea jakitun geratu da.

7.- Ebazpena

Correos-en hauteskunde-propagandako bidalketak uzteko epea luzatzeari buruz (919)

Nork :Hauteskunde Batzorde Zentrala

Ebazpen hau bidali egin da lurralde historikoetako hauteskunde batzordeetara.

8.- Idazkia

TVEren posta elektronikoa bat helarazten du, jakitera emateko errakuntza bat gertatu dela hauteskunde-emanaldia ematerakoan, Equo Berdeak koalizioaren bi spot eman ez baitira, eta errakuntza zuzendu egin dela jakinarazteko (922)

Nork :Bizkaiko LHko Hauteskunde Batzordea

Batzordea jakitun geratu da.

La Junta toma conocimiento y acuerda su remisión al Gobierno.

6.- Escrito

Comunica el desistimiento por parte de Izquierda Unida en el recurso contencioso-administrativo contra acuerdo de 20-9-12 de la Junta Electoral Central desestimatorio del recurso interpuesto contra acuerdo de 14-9-12 de la JECA en relación con el reconocimiento del derecho al uso de los medios de titularidad pública durante la campaña electoral (917)

Origen: Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, Sala de lo Contencioso-Administrativo

La Junta toma conocimiento.

7.- Resolución

Sobre solicitud de ampliación del plazo para el depósito en Correos de envíos de propaganda electoral (919)

Origen: Junta Electoral Central

Esta Resolución ha sido remitida a las juntas electorales de los territorios históricos.

8.- Escrito

Traslada correo electrónico de TVE poniendo en conocimiento que se ha producido un error en la emisión del bloque electoral al no haber emitido dos spots de la coalición Equo Berdeak y comunicando su solución (922)

Origen: Junta Electoral del TH de Bizkaia

La Junta toma conocimiento.



9.- Erabakia

Bizkaiko lurralde historikoaren lurralde barruan baimentzeari buruz CER eta CERako hautesle-erolden kopien entrega, epetik kanpo egindako eskaerari erantzunez, JECari bidaliz gainerako lurraldeei dagokienez (923)

Nork :Bizkaiko LHko Hauteskunde Batzordea

Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak baimendu egin du Gipuzkoako eta Arabako lurralde historikoetako hautesle-erolden kopiak entregatzea. Halaber, agindu egin da akordio hau lurralde historiko horietako hauteskunde-batzordeei helaraztea.

10.- Idazkia

Bizkaian, Alonsotegin hauteskunde-propagandako posta-bidalketak hauteskunde-kanpaina hasi baino lehen banatzeari buruz (925)

Nork :Correos, 3. Esparruaren Zuzendaritza

Batzordea horren jakitun geratu da eta agindu du idazkia Bizkaiko Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeari helaraztea.

11a.- Idazkia

Kide ez judicial berria izendatzeari buruz Francisco Javier Corcuera Atienza jaunak aurkeztutako uko-egitearen ondorioz (926)

Nork :Bizkaiko LHko Hauteskunde Batzordea

11b.- Idazkia

Ignacio Lasagabaster Herrarte jauna proposatzen du kide ez judicial gisa, Javier

9.- Acuerdo

Sobre autorización dentro del ámbito del territorio histórico de Bizkaia de la entrega de copias del censo electoral del CER y CERA a solicitud realizada fuera de plazo, remitiéndose a la JECA en cuanto al resto de territorios (923)

Origen: Junta Electoral del TH de Bizkaia

La Junta Electoral de la Comunidad Autónoma autoriza la entrega de copias del censo electoral correspondiente a los territorios históricos de Gipuzkoa y Araba. Asimismo, se ordena dar traslado de este acuerdo a las juntas electorales de dichos territorios históricos.

10.- Escrito

En relación con la distribución en Alonsótegui (Bizkaia) de envíos postales de propaganda electoral antes del comienzo de la campaña electoral (925)

Origen: Correos, Dirección de Zona 3ª

La Junta toma conocimiento y ordena dar traslado del escrito a la Junta Electoral del Territorio Histórico de Bizkaia, para su remisión a la Junta Electoral de Zona correspondiente.

11a.- Escrito

Sobre nombramiento de nuevo vocal no judicial ante renuncia formulada por D. Francisco Javier Corcuera Atienza (926)

Origen: Junta Electoral del TH de Bizkaia

11b.- Escrito

Propone como vocal no judicial a D. Ignacio Lasagabaster Herrarte, en



Corcuera Atienza jaunaren ordezkari (927)

Nork : Bizkaiko LHko Hauteskunde Batzordea

Batzordeak agindu du Hauteskunde Batzorde Zentralari helaraztea bai Francisco Javier Corcuera Atienza jaunak Bizkaiko lurralde historikoko batzordekide izateari aurkeztutako uko-egitea bai Hauteskunde Batzorde honetarako proposatutako kide berria Ignacio Lasagabaster Herrarte jauna dela.

Gai-zerrendatik kanpo, Batzordeak erabaki du hurrengo bilera egitea urriaren 15ean, astelehena, 16:30ean.

Beste aztergairik ez dagoenez, amaiera eman zaio bilkurari 20:30ean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 10a

sustitución de D. Javier Corcuera Atienza (927)

Origen: Junta Electoral del TH de Bizkaia

La Junta ordena se dé traslado de la renuncia de D. Francisco Javier Corcuera Atienza como vocal de la Junta del territorio histórico de Bizkaia y del nuevo vocal propuesto para esta Junta Electoral, D. Ignacio Lasagabaster Herrarte, a la Junta Electoral Central.

Fuera del orden del día, la Junta acuerda celebrar la próxima reunión el lunes, día 15 de octubre, a las 16:30 horas.

Sin más asuntos que tratar, y siendo las 20:30 horas, se levanta la sesión.

Vitoria-Gasteiz, 10 de octubre de 2012

IDAZKARIA / LA SECRETARIA

Montserrat Auzmendi del Solar

**O.E. / V.º B.º
LEHENDAKARIA / EL PRESIDENTE,**

Juan Luis Ibarra Robles